



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

2018 urterako Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra. Hasierako onespena

Lesakako Udalak, 2017ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, honako erabaki hauek hartu ditu, bertzeak bertze:

1.) Hasiera batean onestea Lesakako Udaleko 2018. urterako aurrekontu orokor eta bakarra, baita hura betearazteko oinarriak ere. Gastuak eta diru-sarrerak 2.587.102 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea erakunde autonomoarenak, berriz, 767.000 euroko kopuruan orekatuta daude.

2.) Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Lesakan, 2017ko abenduaren 11n



Alkatea,

Jose Luis Echeagaray Andueza